

II Ondo Bizi Arte Egonaldia

II RESIDENCIA ARTÍSTICA DEL BUEN VIVIR

APIRILAK 3-9 ABRIL

-KARRANTZA 2018-

ITXASO DÍAZ

BRUNO DELGADO RAMO

ONINTZA ETXEBESTE



ONDO BIZI JARDUNALDIK / JORNADAS DEL BUEN VIVIR
ARTE y PASTOREO
- KARRANTZA 2018 -

Apirilak 7 de abril - Kultur etxea - 17:00 - 20:00h

Aurkezpena/presentación:

II Ondo Bizi Arte Egonaldia

II RESIDENCIA ARTÍSTICA DEL BUEN VIVIR

ITXASO DIAZ, artista

ONINTZA ETXEBESTE, artista

PASADO, PRESENTE Y FUTURO DE LA OVEJA CARRANZANA

Ikus-entzunezko proiektzioa /audiovisual:

ARTZAIN-KULTURA KARRANTZA HARANAN - LA CULTURA PASTORIL EN EL VALLE DE CARRANZA

Hitzaldi-eztabaida /Charla-debate:

Miguel Sabino Diaz Garcia, etnógrafo

Izaskun Elitxegerra, pastora y presidenta de Avascane

Angel Kanete, pastor de oveja carranzana cara rubia

Batis Otaegi, coordinador de la Escuela de Pastores de Aranzazu

Zinema /cine: **BOBINAS OVINAS: LA OVEJA Y EL CINEMATÓGRAFO**

Bruno Delgado Ramo, artista





II Ondo Bizi Arte Egonaldia

II RESIDENCIA ARTÍSTICA DEL BUEN VIVIR

- KARRANTZA 2018 -

Mutur Beltz elkarteak aurkezten du **II. Ondo Bizi Arte egonaldia, Karrantzan 2018an**. Arte egonaldia apirilaren 3tik 9ra ospatuko da, aurreko ekintzen jarraipena delarik. Karrantzan ardien eta artzaien egoeraren hausnarketa, eztabaida eta zabalkunderako espazioa handitzeko helburuarekin, artzaiek zein artistek elkarbizitzeko aukera izango dute.

Bigarren Ondo bizi arte egonaldi honetarako, antolakuntzak proposamenen deialdi irekia aurkeztu zuen eta jasotako 19 lanen artean bi proiektu izan dira aukeratuak, **Bruno Delgado Ramo** (Sevilla) eta **Onintza Etxebeste** (Oiartzun). Bestalde, mutur beltz elkarteak, artista gonbidatua bezala **Itxaso Díaz** (Bilbao) deitu du, zein ikus-entzutezko sormen prozesu bat aurkeztuko du, bizitako esperientzia bere ikuspuntu sortzailetik kontatuko duena.

Arte egonaldi honek duen ezaugarri batekin hasteko, Ondo Bizitzeak, *Balneario Casa Vicente Pallotti de Karrantza* bisita egingo dugu. Bertan, ur mineromedizinaletan bainatuko gara, eta ondoren bazkariarekin batera asteko antolakuntza osatuko dugu. Dieta osasuntsu batekin elikatuko gara, gehienetan karrantzako produktuak erabiliz. Artistek Gure Naia landa etxean gaua egingo dute, Karrantzako berezitasunak ondo gordetzen duena, Ahedoko auzoan. *Pozalaguako kobazuloa* eta *Dolomitak Fabrika museoa* ikusteko parada izango dugu astean zehar. Baserri desberdinak ikusiko ditugu eta Karrantzako artisau gazta egingo dugu **Avascane** elkarteko artzaiekin batera. Modu honetan, artistek ingurua ezagutzeko aukera ezin hobea izango dute eta elkarbizitza honetatik proiektu artistiko bat osatuko beharko dute, zeinek Karrantzako herriari **ArTzai TopaKetan 2018** aurkeztuko duten. Egun hau ekainean ospatuko da eta bertan aurkezteaz gainera beste espazio batzuk bilatuko ditugu proiektua zabaltzeko baina oraindik zehazteke daude. Modu honetan egindako lan guztia ezagutarazteko aukera izango dugu eta bide batez Karrantza Harana ere.

Arte egonaldian zehar, apirilaren 7an larunbatean, **Ondo Bizi Jardunaldiak** ospatuko dira, horrela esperientzia hau herriari aurkezteko aukera izango dugu. Artista partehartzaileek beraien sormen prozesuaz hitz egingo digute eta astean zehar bizitakoaz. Era berean, karrantzako ardi arrazari buruzko hausnarketa bat beteko da, iragana, oraina eta geroa aztertuz. Horretarako antolakuntzak hurrengo parte harzaileak gonbidatu ditu, **Miguel Sabino Díaz García** etnografoa, Avascaneko lehendakaria eta artzaia den **Izaskun Elitxegerra**, karrantzako ardi mutur gorriak dituen **Ángel Kanete** artzaia, eta Arantzazuko Artzai Eskolaren koordinadorea, **Batis Otaegi**.

II Ondo Bizi Arte Egonaldiarekin bukatzeko, artista eta artzaiekin batera bazkari bat antolatu dugu. *Casa Garras Jatetxean* ospatuko dugu eta jakiak etxeko ardia eta esnekiak izango dira Txema LLamosas sukaldariak eginak.

+ info:


MUTUR BELTZ SUSTATZEKO ELKARTE AGROKOLOGIKOA, ARTISTIKOA ETA KULTURALA

+34 617941595 // +34 639253436

www.karrantzakomuturbeltz.blogspot.com



ARTISTAK



ITXASO DÍAZ

EHUko Arte Ederretako fakultatean lizentziatua ikus-entzunezkoetan eta Arte eta teknologian doktoreduna da Itxaso Díaz (1974, Gallarta). Orain dela 16 bideo sortzaile, zinemagile, diseinatzailea eta prozesu parte-hartzaileen antolatzaile, bideo-jaialdi eta kultur-ekimenen ekoizlea ere bada. Urte askotan zehar besteen lan eta ahotsak aurkezteko lan egin du. Erretratu sozialetan iaioa eta kultur eta ingurugiro sozialetan aritzen da. Informazio gehiago: www.itxasodiaz.com

- PROIEKTUA

“El espacio de convivencia Karrantzano, entendido como la interacción entre el paisaje, el paisanaje y el mundo ovino, se convierte en el foco de atención de esta propuesta que pretende realizar un esbozo audiovisual de lo que probablemente se conforma como un entramado tejido a lo largo de una acumulación de experiencias, históricas y contemporáneas, que representan parte de una identidad de un territorio que tiene mucho que contar. La mezcla del sentir de lo local y lo foráneo darán forma a una narrativa en torno a una misma temática y un mismo espacio, generando un conjunto de videoretratos que dibujen un mosaico plural, heterogéneo y diverso.”



ONINTZA ETXEBESTE

Arte Gradua eta Ikerketa eta Sormena Artean Masterra (UPV-EHU). Bere ibilbidea euskal testuinguruan garatu da, praktika artistikotik abiatutako proiektuen bitartez, iragan eta orainaldiaren arteko harreman-transmisio bideak garaikidetasunean artikulatuz. Bakarkako erakusketa eta kolektibo anitzetan parte hartu du, eta gaur egun Eusko Jaurlaritzako Doktoretza Aurreko bekarekin Doktoretza Tesia garatzen ari da (Ikerketa Arte Garaikidean programan, Soziologia II departamentua). Informazio gehiago: www.onintzaetxebeliras.com

- PROIEKTUA

Ahalegin hau Karrantzako artzaintzaren iraunkortasunaren testigu izan nahi du, baita garaietan zehar jasan dituen aldaketena ere. Lekuko giroek eskeintzen dituzten elkarriketetatik abiatuta, Mutur Beltz ardien inguruko identitate eta kulturaren transmisio nukleok bertako baserriaren erlazonalitateak irekitzen dituzte, hedatu bihurtuz, denbora-arteko loturen elkarriketa anitz ahalbidetuz. Bertan suertatzen diren testigantza eta transmisioetan oinarrituz, sare horren parte aktibo eta performatibo izan nahi da.

Ondare material batetik, baserriaren eredu fisiko eta marduletik, hura bizirik mantentzen duen esperientziaren, memoriaren eta identitate kulturalaren ondare ez-materialaren artikulazioa proposatzen da, arte mailatik eratorritako arkeologia sonoro bat bailitzan, bere biziraupenean lagun dezakeen narratiba berri bat eraikiz, bertatik berreraikiz.



BRUNO DELGADO RAMO

La práctica artística de Bruno Delgado Ramo se ubica entre el cine, la performance, la arquitectura y la instalación. El dispositivo filmico, la investigación basada en la práctica artística y la exploración de la estancia como dispositivo son cuestiones recurrentes de su trabajo. En 2017 el festival Novos Cinemas estrenó su primer largometraje, «Comienza y termina». Desde 2015 desarrolla una investigación acerca de la ventana como un dispositivo con implicaciones cinematográficas que ha dado lugar a su trabajo final de grado «Si se mira por la ventana del primer piso durante el tiempo suficiente» y a otras propuestas performativas y filmicas. Recientemente ha comenzado a trabajar en una película en formato Super 8 en la que llevará al cine el libro «Voyage autour de ma chambre».

brunodelgadoramo.com

- PROIEKTUA

«Bobinas ovinas, o cuando el pastor sabía reconocer cierta inmortalidad en el anonimato de su rebaño», es un proyecto cinematográfico que intenta acercar la práctica experimental del cine —tanto desde la creación como desde la proyección— al entorno específico del Valle del Karrantza y a los procesos sobre la oveja carranzana cara negra. La serie de registros en película Super 8 a realizar en el Valle, parten del propósito de dejarse afectar por las ovejas, la naturaleza, los modos de vida y los trabajos relacionados con la oveja cara negra, así como por el material filmico y las reminiscencias de la historia del cine. Filmar en celuloide permite acceder a un proceso arraigado a lo material y en el que hay una relación manual y directa con los medios técnicos, trabajando cuerpo a cuerpo con la imagen en movimiento. Esto entronca con los modos de vida rurales y sus prácticas artesanales. Así, uno de los posicionamientos de partida es la relectura de la bobina de película cinematográfica desde la bobina de lana. Paralelamente, se plantea proyectar en Karrantza algo así como una breve genealogía de la oveja en el cine. Esta serie de películas en las que aparecen ovejas es una oportunidad de descubrir vínculos o ecos inesperados entre los distintos títulos.

+ info:

MUTUR BELTZ SUSTATZEKO ELKARTE AGROEKOLOGIKOA, ARTISTIKOA ETA KULTURALA

+34 617941595 // +34 639253436

www.karrantzakomuturbeltz.blogspot.com

